

Haize Othondo

OLENTZERO



iKaS

Inkazkina bera bizi zen mendi altean eta oihanetik hüllan,
egürra behar beitzüan inkatzaren egiteko.



Goizetik arratseala inkatz esküestatzearen bortxaz,
begitartea eta esküak beltz-beltzik zütüan.



Negü hārtan, etxen, akitür̄ik eta doi bāt triste senditzen zelākōz,
herrialā joaitea deliberatü züan inkazkinak. Gaüa zen jada.



Herrialala heltzean, ostatü bat zabalik zatekeala pentsatü züan,
argiak piztürrik ikusi beitzütüan.



Borta ez zen osoki zerratürrik eta ausartü zen sartzera,
bena segidan ohartü bere ustegabeko
bisitak giro bitxia sortü züala ostatü hartan.
Zeren, bat-batetan oro baratü ziren jatetik
eta bürüa hari bürüz eraiki züen.
Lotsatürrik ziren.
Begien aitzinean, gizon zikin eta ezezagün bat züen.
Basajauna bezalako gizon bat.



Ostatü zokoko mahain libre bati bürüz jarri zen eta salda
bero bat manatü züan.

Bere üngürüan, herritarrak murmuzikaz entzüten zütüan.

Besterik pentsatü gabe, jaten hasi zen.



Bat-batetan, herritar bat jeiki zen eta inkazkinarengana hüllantü ;
beste herritar elibatekin, üngüratü züan.

Bürüzagi itxüra züanak ostatütik elki zedin erran zeion,
herrian ez züela gizon zikinik honartzeko gogorik.



Inkazkinak, nahi ala ez, ontsa entelegatü züan herritarrek ez züela haren presentziarik nahi.

Ordüan, lagün bakoitxa züan astoarekin, etxeko bidea berriz hartü züan.



Bidean, ĩnkaztoiak ikusten zütüan, berāk eraĩkiāk,
inkatzaren egiteko.



Inkaztoien kantütik igaran eta, etxera hüllāntü zen, triste,
herritik kanpoalatü beitzüen.



Etxen sartü zelarik, sütondoko züzülüan jarri zen,
süia berriz piztüko zenez gogoetatüz.

Tximinian baratzen zen inkatzari so zagoan, haren begitarte
eta esküak bezala ülün zela pentsatüz.

Inkatza beltz zen, negüko gaüak diren bezala.



Inkazkina bere pentsamentükan galdürük zelarik,
bat-batetan aizea tximiniatik etxean sartü zen.
Inkatz biziaren gaineala buhatüz, süia berriz piztü züan.
Ordüan süia tximinian dantzan hasi zen,
inkazkina argitüz eta berotüz.



Aizearen buhakoak inkazkina alageratü züan.

Aizeak inkazkinari zerbait entelegarazi zeion.



Inkazkinak konprenitü züan ordüan negüa bezala, inkatza beltz zela, bena inkatz biziari bühatüz, argia eta beroa berriz horra zirela.

Ordüan, negü beltzaren ondotik, üda berriz jinen zela entelegatü züan. Eta üdarekin batean, ekia, argia eta beroa.



Berri honaren emaitako, inkazkina laster joan zen bere astoarekin herritarrengana.



Herrialala heltzean, ohartü zen jentea etxen zela, ahal bezain beroki.
Borta güzietan jo eta jo erauntsi züan, denen iratzartzeko.



Lehenik haurrak ziren etxerik elkitzera ausartü.

Ondotik, aitamak eta jente xaharrak.

Oro herriko plazala joan ziren, inkazkinak zer zioan entzütera.



Artean, inkazkina sü handi baten pizten hasi zen.

Herritar güziak üngürüan üken zütüalarik, aizeak entelegarazi zeion
mezüaren kontatzen hasi zen.

“So egizüe”, erran züan, “esküetan inkatz beltza düt, negüan gaüak
diren bezalakoa. Bena inkatz horri esker, süia berriz pizten ahal dügü,
bazterren argitzeko eta berotzeko.

Süia berriz pizten ahal den bezala, negütik landa berriz horra da üda.
Eta üdarekin batean, ekia, haren argia eta beroa.

Hebentik aitzina, ez dügü haboro negüaren beldür izan behar,
beitakigü haren ondotik argia eta aro beroa ützüliko direla.”



Hitz horien entzütean, herritar güziak anpletü ziren.

Oro dantzan eta kantan hasi ziren, argia berriz jinen zela pentsatüz.



Egün harez geroztik ere, inkazkina mendian bizi da, oihan ondoan.
Bena urte güziez, negü beltzean, herritarrengana horra da
inkatzaren ekartera.
Inkatza partekatzen dü, herritarrer oritarazteko negütik landa,
üda ützüliko dela.
Eta üdarekin batean, ekia, argia eta beroa.

